BERRIA
Asteazkena, 2016ko ekainaren 22a

Herdoilak jota

Industriagune abandonatuak. Autobide deserosoak oinez doanarentzat. Gasolindegiak. Merkataritza guneko argiak. Autobus geltokia gauez. Ertzeko errepideetako zirkiluak. Apopilo gela maiztua. Jendez urri diren herriak... Desolazioa alderik alde eta bete-betean. Pello Lizarraldek, aurreko nobelan bezala –*Orbanak* (Erein, 2012)–, bazterreko zoko horietara garamatza *Elur bustia* eleberrian (Erein, 2016).

Dena osatzeko, eguzki galgatan hasitako bidaia, ekaitzetik pasa eta hotzak eta umelak jotako deserosotasunean bukatuko da; elurrari zuritasunaren ederra kendu eta ezkortasun izoztua besterik ez denaren jasa pean. Paraje eta eguraldi aldarte horietan zehar dabilen pertsonaiari lanerako aukera zapuztu egin zaio, eta esku hutsik doa etxera bueltan, motxilan ekipaje guztia, poltsikoan noizbehinka kafe bat eta ogi zati bat erosteko txanponak.

Gosea, egarria, nekea, logurea, mina... eta bere burua garbitu eta txukundu beharra; komun publikoetan, iturriren batean... Telefonoz egindako dei parearengatik jabetzen gara etxean zain izan behar dituela emaztea eta bi ume; apenas aitortuko dien bere frakasoa.

Idazleak ez digu ezer kontatzen belarri ertzera. Idazlea ez da lerratzen, ez du juzgurik egiten onaz eta txarraz. Sentsazioak eta eszenak deskribatzera mugatzen da, koadroak pintatzen ariko balitz bezala; koadro espresionistak inondik ere. Idazleak irakurlearen gain uzten du istorioa osatu eta interpretatzea.

Zumarragakoa da Pello Lizarralde, eta herrikidea du beste idazle hau: María Jesús Orbegozo. Honek argitaratutako nobela –*Hijos del árbol milenario* (Planeta, 2010)– Lizarralderenaren antipodetan dago. *Elur bustia* soiltasun erabatekotik eraikitako eleberria den bezala, Orbegozorena altzariz eta tapizeriaz, portzelanaz eta pitxiz gainezka dagoen eszenario burgesa da. Hainbat istorioren nahas-masa entziklopedikoa, non pertsonaiak marra gorri baten alde banatan kokatzen diren, gupidarik gabe bereiziz zintzoak eta gaiztoak, jatorrak eta petralak, tenplatuak eta desorekatuak... eta, batez ere, goikoak eta behekoak.

ARKUPEAN
Elixabete Garmendia Lasa

Herdoil kolore gorriztakoa ezagutu dugu beti Orbegozo lantegia: txatar mendiak bistan, ke lodia zerurantz, burrundara ozena pasaeran. Labeak itzalita, industriagune abandonatu desolazioz betea bihurtuko da

Maria Jesus Orbegozo, Esteban Orbegozo SA enpresaren jabeen familiakoa da. Bere aitonak sortu zuen lantegia; aita, Satur, 1982ko azaroan bahitu egin zuen ETAk Zumarragan bertan, mezetara zihoala. 1986an ordainketa-etenduran sartu zen enpresa. Orbegozo familiak jaregin zionetik, eskuz esku ibili da lantegia; izan da Acenor, Aceralia, Arcelor... eta, azkenik, Arcelor Mittal. Izenarekin batera izana ere galduz joan da, geroz eta urrutiagoko jabeekin, multinazionalen atzaparretan, zulo beltzak irents dezakeen puntura iritsi arte.

Pello Lizarralderen pertsonaia, Ramiro, ez da buzodun behargina, sasoikako langilea da nekazaritzan. Ez du lanpostua galdu; lanik ez du aurkitu. Zirkunstantzia horiek alde batera utzi, eta ez da zaila Zumarragako Arcelor Mittaleko langileak eta haien familiak bizitzen ari direnaz gogoratzea. Ramiro hegoalderantz doa, iparraldean frakasatu ondoren. Zumarragakoek mendebaldera –Asturiasera– joatea dute aukera bakarra, lanpostuari eutsiko badiote.

Maria Jesus Orbegozoren nobelak, nahiezta ere, XX. mende hasieran lantegiak sortu eta burgesia izatera iritsi zen jende klase haren gainbehera eta desagertzea islatzen du; ez horrenbeste kontatzen duenarengatik, bere ikuspegiak adierazten duen endekapenarengatik baizik.

Herdoil kolore gorriztakoa ezagutu dugu beti Orbegozo lantegia: txatar mendiak bistan, ke lodia zerurantz, burrundara ozena pasaeran. Labeak itzalita, industriagune abandonatu desolazioz betea bihurtuko da. Pello Lizarraldek deskribatzeko modukoa.

ZUZENDARIARI

Tiroen eraginez

Odola isurtzearekin batera zainak beldurrez bete zaizkigu, ikara tapoi batek gure bihotza ez etetea espero dugu, zinez. Identitatea, izaera eta gure esentzia ukatzen zaigu etengabe, eta bat-batean amorru eta gorroto itsuak eztanda egiten du eta zipriztinak mundu guztian barna zabaldu dira. Urduritasunak korapilo bat sortzen dit estomakan, eta intentsitate txikiko dar-dar batek hartu dit gorputza. Ezin dugu honen aurrean hasperen besterik ez egin. Balak kaskezurrak zulatu dituzte eta lumek balore ustelak erail. Eta bat-batean ezinegona hitzetara bideratzea erabaki dut. Zartakoka tratatzen gaituztenek ez dute erantzun-eztirik jaso behar. Ukabilak tinko ditugu, eta kontran jartzen zaigun edonor kolpatzeko prest ere bai. Ez dugu inoiz ere gehiago burua makurtuko.

Zoritxarrez, Ilargira ailegatu diren herrietan jazotako heriotzen berri baino ez dugu izaten; egoera gordin eta krudelenak ia ikusezinak zaizkigun herrialdeetan jazotzen dira. Oroitu ditzagun Nigerian zintzilikatutakoak, Saudi Arabian desagertutakoak, Ugandan kartzelan usteldutakoak... Horiek ez dute inongo egunkariren portadarik betetzen: itzalpean gelditzera kondenatu ditugu. Hipokrisia horretan erori behar izaten dugu maiz, zentroko herrialdeetako hilak kontatzen ditugulako soilik, eta badirudi, gainera, periferian isuritako odol ibai batek eta zentroko tanta batek tinta gastu bera dakarkietela komunikabideei. Baina gure kide okzidentalen hilketak erdigunean jarri du homofobiaren arazoa.

Icebergaren muturraren ikusleak besterik ez gara. Etsaia gure artean (eta gure baitan) errotua dago, eta pozoia ur baso garden batean bezala hedatzen da. *#MatarGaysNoEsDelito* traolean honako «harribitxiak» aurki ditzakegu: *#MatarGaysNoEsDelito, es un placer* eta *es hacer honor a la patria*. Sinestezina, tragikoa, nazkagarria, faxista, lotsagarria... hainbat adjektibo erabil genitzake horrelakoak definitzeko. Gizabanako horiekin pedagogia erabili behar dugula esaten digutenean, egiazki kostagarria egiten da konponbide biolentoak martxan jarri nahi ez izatea. Pazientziari atxiki beharko diogu geure burua, momentuz bada ere bederen.

Bestela, ekainaren 28a bueltan dugula baliatuz, eraso hori eta isildutako beste milioika erasoak bultzadatzat hartuta kalera ateratzera animatu behar dugu gizarte osoa identitate, jarrera eta desira aniztasuna bultzatzeko eta ikusarazteko. Biziaren aurka egiten dutenei aurre egitea kitzika eta plazer osoa zaigulako.

Mahats Lantz Solbes. Kitzikaneko kidea.

Laikotasuna eta herrietako jaiak

Badatoz herrietako jaiak, denok (edo gehienok) hainbeste itxaroten, txalotzen eta desiratzen ditugunak. Jai horiek denboraren poderioz eraikitako zentzu komunitarioaren sinbolo dira; eta nahiz eta egia izan jaiek sentimendu kolektibo horren sinbolo direla, *gu* bat eraikiz, besteengandik bereiziz, eta geureak ditugun erreferentziak eta kanpotik harturikoak batuz, jaiek beti dute tradizioan oinarritutako osagai sendoa.

Hala ere, adierazi beharra dago eraikuntza hori inoiz ez dela bere jatorrizko ezaugarriekiko guztiz fidela; izan ere, haren ezaugarriak denboraren poderioz aldatu egiten dira, jendearen errealitateetara, pentsamenduetara eta balioetara egokituz.

Antzinatik, Eliza Katolikoak afera zibiletan eta erakunde publikoen gainean izan duen eragina (eta askotan, eragina baino gehiago, inposizio eta betebehar bihurtu dena), modu batera edo bestera, oraindik mantentzen da. Eragin eta inposizio horrek, betiere tradizioan oinarriturik, udal asko bultzatzen ditu erritual eta sinbologietan parte hartzera, Elizaren ordezkariekin mahaia eta oholtza partekatzeraino. Baina gizarte orotan daude tradizio *positiboak* (festa bera, adibidez) eta tradizio *negatiboak* (hala nola jazarpena edo sinbolo ez-partekatuen inposizioa).

Espainiako Estatuko lege gorena den Konstituzioaren arabera, Estatua akonfesional gisa definitzen da, hots, herrietako agintariek ez dute parte hartu behar, ordezkari politiko gisa, inolako elizatako ekitaldietan (beste gauza bat litzateke norbanako gisa joatea erabakitzea beren kargu politikotik haratago). Izan ere, Estatuaren eta erlijioen arteko banaketa denok legearen aurrean dugun berdintasuna bermatzeko modua da. Gainera, gizarte sekularizatuetan bizi gara, non euren burua fededuntzat duten horiek beren erritual propioak dituzten; Aste Santua, adibidez.

Hortaz, exijitzen dugu herrietako festak jarduera hertsiki zibil gisa garatzea, inolako konnotazio erlijiosorik gabe. Beharrezkoa da ekitaldi ofizial guztietatik edonolako sinbologia erlijiosoa ezabatzea. Modu berean, eskatzen dugu udalek ez dezatela inolako erritu edo ospakizun erlijiosorik sustatu, eta ekitaldi zibiletara ez dadila ezein erlijiotako ordezkaririk gonbidatu.

Patxi Olasagasti. Laikotasuna taldea.

BERRIAk irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tarteak barne, eta **BERRIA**k mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Berria, Martin Ugalde kultur parkea, 20140 Andoain. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: iritzia@berria.eus.